

VI. BOZKA EREMUA

Gogoeta egiteko eztabaidak eramanen ditu Batasunak

Nora Arbelbide | URRUÑA

Gaur abiatuko du Legebiltzarretarako bere kanpaina ofiziala Batasunak. Hendaia Kaneta portuan lurraldetasunari buruz ekitaldi bat antolatuko dute, 12:30ean. Bertatik irtengo da kanpainako autokarabana, gero hiru probintzietan barna ibiltzeko.

Hortik haste, hainbat eztabaida finkatuak ditu Legebiltzarren lehen itzuli aitzin eta ondorengo. Ideiak eta solasak trukatzeko dute helburu. Atzo hain zuzen, 6. hautesbarrutirako hitzorduen berri eman zuten.

Eremu horretan Batasunaren izenean aurkeztu den Pantxo Belinek bilkura horietan mamia jendeari ematea izan dela azaldu zuen. «Edo bederen, gogoeta bat» pausatzeko aukera. «Hori da, hain zuzen, bultzatu nahi dugun demokrazia», gehitu zuen Belinek.

Solasak gonbidatuekin

«Iruditzen zaigu ez dela bakarrik hautagaiei erantzutea eztabaidetan. Edozein kezka erantzuteko prest badituzte beste alderdiek hautagaiak, guretzat ez da hala. Ez gara espezialistak, ordezkariek baizik», erran zuen Belinek. Elkarlana dela erantzun onena erantsi zuen Batasuneko hautagaiak.

Lehen hitzordua maiatzaren 24koa izanen da. Uztartitzen Lapurdi gelan 20:00etan finkatu dute Euskal Herriarentzako instituzio proposamenari buruzko eztabaida. 29an Miarrizten lur antolaketaz ariko dira. 30ean, Senperen ingurumenaz, eta biharamunean Bidarten itsasoaz ariko dira.

Kontsorzio gaiaz besteak beste, Koldo Gorostia gaia eurodiputatuarekin mintzatuko dira ekainaren 3an Hendaian. Biharamunean Ezpeletan lur erabilpenaz ariko dira. 5ean, Arrangoitzeko sistima elektoralaz aztertuko dute. 7an Donibane Lohizunen bake proposamenaz eta 11n Kanbon hauteskunde bilanaz ariko dira. 14an Saran bertan afaria egingen dute.

LABURAEAN

Pastor, hautagai bakarra Bizkaiko PSE-EEko idazkari nagusi izateko

ARGAZKI PRESS
J. Antonio Pastor.

Ortuellako alkate Jose Antonio Pastor izango da hautagai bakarra Bizkaiko PSEko idazkaritza nagusirako. Redondorenildoaren ordezkarietaz atzera egin eta azkenean ez dute zerrenda aurkeztuko.

Mikel Cabieces Portugaleteko alkatea josten zen Pastorren balizko lehiakidetzat, baina PSEko Kongresuan izandako porrotaren ondorengo, Redondoren aldekoek zerrendarik ez aurkezte erabaki dute. Pastorek ez du zuzendaritzan aldaketa handirik egiteko asmorik eta dozena erdi kargu izan ezik, beste guztiak mantenduko ditu. Bizkaiko sozialisten kongresua igandean burutuko da Bilboko Euskalduna Jauregian eta bertara Bizkaiko 47 herriko etxe sozialistatako 340 delegatu daude deituta.

Terrorismoaren Biktimen Fundazioan sartu da Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernuak Terrorismoaren Biktimen Fundazioko partaide izatea erabaki du. Fundazioko lehendakaria Adolfo Suarez Espainiako presidentea da. Hark luzatu dio gonbidapena Miguel Sanz Nafarroako presidenteari. Ziurrenik Sanz bera izango da Fundazioko patronatuko kide. Gobernuak uste du «terrorismoaren biktimen aldeko lana koordinatuta» egon behar dela.

ASES bizkartzain elkarteak grebara deitu du ostegunerako

ASES Espainiako Biskartzainen Elkarteak grebara deitu du ostegunerako, segurtasun neurri eske. Besteak beste bizkartzain kopurua bikoiztea, CII arma baimena izatea eta segurtasun indar publikoen arteko koordinazioa dute eskari. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiakoaren erantzunen zain daude.

Ustez ETak erabilitako apartamendu bat miatu dute asteburuan Nimesen

Frantziako Poliziak apartamendu bat miatu zuen larunbatean Nimesen, ustez ETak erabilitakoa. Apartamendua hutsik zegoen. Hala ere, ikerketako iturriek ETaren Madril komandoak erabili zuela jakinarazi zuten, eta «garbiketa egiteko astia» izan zutela. Maiatzaren 14an komando horretako ustezko bi kide atxilotu zituzten Madrilen, Imanol Miner eta Mikel San Argimiro.

Segurtasun Batzorde Teknikoan akordioak sinatuko dituzte gaur

Zinegotzien segurtasuna bermatzeko aldera maiatzaren 9an lortutako akordioak sinatuko dituzte gaur EAJ, EA, EB-IU eta PSE-EEK, Segurtasun Batzorde Teknikoan. Ondoren, Javier Balza Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuak akordio berri emango du. Zinegotziak babestu eta udal ordezkariak bermatzea dute xede.

EUSKAL PRESOK. Gaitz larri eta sendaezina du

Barandalla berriro espetxera eraman dute ospitaletik

Igandean larrialdietara eraman behar izan zuten sabeleko mina eta botalarria zuelako

Erredakzioa | DONOSTIA

Bautista Barandalla euskal preso Zaragozako kartzelatik atera eta ospitalera eraman behar izan zuten igandean, larrialdietara. Atzo, ordea, berriro espetxera itzuli zuten gastroenteritis zuela esanez. Etxerat elkarrekin kezka agertu du preso horren egoeratik.

Barandallak gaitz larria du, eta apirilaren 20an ebakuntza egin zioten heste lodia kenduz. Joan den ostegunera arte ospitalean egon zen, eta egun horretan eman zioten senda-agiria, Zaragozako kartzelara itzuli. Orduan jada Etxerategi bere kezka azaldu zuen, presoak errehabilitatzeko «lasaitasuna eta elikadura egokia» behar zutela esanda. Zaragozako kartzelan halakorik ez zuela izango zioen Etxerategi, «lehen ere mediku laguntzarik eza pairatu baitzuen hainbat hilabetez».

Barandallari senda-agiria eman arren, oraindik errehabilitatu gabe dagoela adierazi zuen Etxerategi. Horrela, larunbatean bisitara ateratzeko kide baten laguntza behar izan zuen. Igandean sabeleko mina jarri zitzaion, eta jaten zuten guztia bo-

tatzen zuen. Hori dela eta, larrialdietara eraman zuten. Ospitalean ordu batzuk eduki ondoren gastroenteritis zuela adierazi zioten, eta berriro espetxera itzuli zuten atzo goizaldean.

Iruñera joatea ukatua

Barandallak bere gaitzaren larritasuna dela medio, 92. artikulua aplikatu eta aska dezaten eskaera egin du. Bien bitartean Iruñeko kartzelara ekartzeko eskaera ere egin zuen, «senideengandik gertu egon eta behar duen babesa izateko».

Atzo Espetxe Erakundearen zuzendaritzak ukatu egin zion Barandallari Iruñera ekartzeko eginiko eskaera. Espetxe alderdiak ukatzeko arrazoiak izan dira, «trasladatua izateko nahikoa elementuak ez» daudela. Gainera, Zaragozan mediku laguntza egokia duela diote. Erabaki horri helegitea jarriko diote Espetxe Zaintzako epaitegian. Etxerategi «iraingarria» jo zuen erabakia.

Bestetik, gogoratu Zaragozako kartzelan dauden euskal presoak txandakako gose greba egiten ari direla Barandalla aska dezaten.

EUROPAKO BATASUNA. Eusko Ikaskuntzaren lanak

EBko Eskubideen Gutuna eta Europako eskualdeei buruzko bi liburu argitaratu dituzte

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

Eusko Ikaskuntzak *Estudios sobre Regionalismo en la Unión Europea* eta *Carta Europea de Derechos* liburuak argitaratu ditu. Eusko Ikaskuntzak antolatutako jardunaldietako ponentziak jasotzen dituzte. Atzo aurkeztu zituzten, Donostian, Jose Manuel Castells Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide sailko presidente eta Administrazio Zuzenbide katedradunak, Maite Zelaia EHUko Zuzenbide Konstituzionalaren irakasle eta Eusko Ikaskuntzako kideak eta Joxerramon Bengoetxea Luxenburgoko Europako Justizia Auzitegiko abokatuak.

Lehen liburuak, Europako Batasuneko erabaki guzietan parte hartzeko 2000ko Gobernuaren arteko Konferentziak Europako eskualdeei

eman zizkien aukerak eta aipatu konferentzian Europako Eskualdeen Batzordeak planteatu zituen exijentziak eta emaitzak jasotzen dira. Zelaia ustez, emaitzak «nahiko urriak» dira. *Carta Europea de Derechos* liburuan gutunaren eraginkortasun juridikoa aztertzen da.

Bengoetxeak adierazi zuenez, Europako etorkizunari buruz 2004an egingo den Gobernuaren arteko Konferentziaren eztabaidari «ez zaio duen garrantzia ematen ari». Bere ustez, orain arte eztabaida «gailurretik egin da. Orain prozesua parte-hartzaileagoa da». Ekialdeko estatuak sartzearekin eskualdeek EBn parte hartzeko dituzten errebindikazioak «neutraliza» daitezkeela uste du Zelaia, «estatu horiek ez dutelako eskualdeen aldeko errebindikazio hori».

LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN MANKOMUNITATEA, LEHENDAKARITZAREN BANDOA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Lehendakariak, 2002ko maiatzaren 15ean, Babesturiko Giza Lan Programa garatzeko monitore lanposturako oinarriak onetsi zituen.

Kontratua bederatzi hilabetekoa izanen da, lanaldi erdian, ordu kopuruan aldaketak izan daitezkeelarik.

Baldintzak:

- Hurrengo Titulu baten jabe izatea: Batxilergoa edo Lanbide Heziketaren Hirugarren Graduko Titulua.
- Euskalduna izatea.
- Kotxe edo gidatzeko baimena izatea.

Interesatuak eskaera eta kurikuluma konpultsatutako aurkeztu beharko dituzte ekainaren 3a baino lehen, Mankomunitateko bulegoetan (Leitzako Osasun Etxea). Egun honen eguerdiko hamabietan amaituko da eskaerak onartzeko epea, probak ekainaren 4an izanen direlarik. Oinarriak eskuragarriak izanen dira aipatutako lekuan.

Puntu gehien ateratzen dituen hautagaiak, ekainaren 6an hasi beharko da lanean.

Maite Sarobe. Mankomunitateko Lehendakaria.